

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2022ko abenduaren 21eko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatceguy, Nicole Amestoy, Maud Gastigard, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, herri biltzarkideak.

Ezin etorriak: Jean-Paul Eyherachar, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Peio Etcheleku, Amaia Beyrie, herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Jean-Paul Eyherachar-ek Jean-Noël Magis-i, Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri, Isabelle Ayerbe-k Yolande Huguenard-i, Bernadette Remeau-k Roger Barbier-i, Sébastien Carre-k Christian Devèze-ri, Peio Etcheleku-k Jean-François Lacosta-ri, Amaia Beyrie-k Nathalie Aïçaguerre-ri.

- Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Véronique Cadepond-Larronde anderea izendatu dute saioko idazkari izateko.

Herri biltzarkideen kopurura.....	29
Presente diren herri biltzarkideak	22
Ahalorde kopurua.....	7
Hor ez direnak.....	7

– Solasgaiak:

86 – Herriko bideen izendapenak.....	3
87 – Herriko bideak: bideen sailkapen taularen eguneratzea.....	5
88 – Grancher profesorearen etorbideko eskuratzeen erregularizazioa eta eremu publikoan txertatzea	5
89 – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Argiteria publikoko instalazioak Territoire d’énergie des Pyrénées-Atlantiques taldeari eskura ezartzea, «Argiteria Publikoko Obra Berriak» eskumen uztearen ondorioz.....	6
90 – Herria eta Enedis-en arteko pasatzeko eskubide hitzarmena	8
91 – TDF: kontratuaren eraberritzea	8
92 – Traktorea eta pala-traktorearen uztea.....	9
93 – Aiglou zinegelaren Zerbitzu Publikoko Delegazioa: kudeatzailearen hautatzea.....	10
94 – Txakurrak sindikatua (XBHAS/SIVU): dirulaguntza aurretiaz ematea	11
95 – Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea	13
96 – 2022ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (AP/CP): indarrean diren AP/CP-en berrikustea eta AP/CP berrien sortzea	14
97 – Inbertsio gastuen kredituak antizipazioz irekitzea	15
98 – «bestak eta ospakizunak» eta «harrerak» gastuei loturiko kontularitza ezarpenak	16

99 – Antolamendu zergaren herriko zatiaren etekina Euskal Elkargoari derrigorrez isurtzea: 2022ko azaroaren 7ko erabakiaren deuseztatzea.....	17
100 – Turismo Bulegoarekiko mandatu hitzarmena.	18
101 – Liztor asiarren kontrako borroka: herriaren diruzko parte hartzea.....	19
102 – Eссор Cycliste Basque lasterketa: 2023ko hitzarmena	20
103 – Artzamendi XBHAS: estatutuen aldatzea	20
104 – Langileria: postu sortzeak	22
105 – Langileria: enplegu sortzea	23

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena.

2022ko azaroaren 7ko akta berrirakurtzen ari gara, eta ondorioz hurrengo Herri Biltzarrean onartuko dugu.

Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2022ko urriaren 16tik 2022ko abenduaren 3ra:

- 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 2
- 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 1

• 2022ko azaroaren 10eko D-2022-032 erabakia: eskuratzeko eskaintza, lehentasunez erosteko eskubidea egikaritzuz – Anne de Neubourg etorbideko 35.ean den jabego eraikia Alienatzeko Asmoaren Deklarazioa, 850 000 €ren truke.

• 2022ko azaroaren 30eko D-2022-033 erabakia: garraio publikoen egitura kudeatzailearen kudeatzaile baten izendatzea.

HITZ HARTZEAK:

850 000 €ko lehentasunez erosteko eskubidearen egikaritzeaz, Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdegin du ea proiekturik ba ote den.

Jean-Paul Alaman jauna gelan sartu da.

Auzapezak azaldu du AADa aurkeztu zela herriko etxean, agorrilean, 1,2 milioi euro balio dituen jabego eraiki batentzako, 180 m² bizigarri dituena.

Jabegoa 2020ko martxoaren 10ean erostea izan zen 615 000 €an. 2022ko irailean, herriak Euskal Elkargoari eskatu zion lehentasunez erosteko eskubidea utz ziezaion, eremu publikoan antolamendu nagusi baten egiteko.

Auzapezak gehitu du, 2022ko urrian lehentasunez erosteko prozeduraren baitako lekuaren bisita batean, saltzaileek salmenta prezioa justifikatzeko lan anitz egin behar dela erran zuten. Eman zituzten elementuen arabera, herriko hirigintza zerbitzuak 206 970 €an baloratu zituzten egin beharreko lanak. Domeinuek 850 000€ko balioa eman diote ondasunari, eta herriak erosteko eskaintza egin du.

Auzapezak gehitu du eskuratze horren bidez, etxebizitza eskaintzaren hobetzeko lur funtsen erreserba bat ere osatzen ahalko dela.

Oroitarazi du alokairuzko etxebizitzaren eskaintza ez dela soilik etxebizitza kolektiboz osatua izan behar, eta beste bitarteko alternatibak existitzen direla, hala nola etxe elkartuak. Auzapezak zehaztu du inportantea dela lurraldean ematen diren higiezin salerosketen erreferentziazko prezioetan egotea, eta erreferentziazko prezio horiek azkarki emendatzea eragingo lukeen espekulazioa saihestea. Bi errepideen arteko biribilgunearen eragin nabarmena aipatuz bukatu du.

Elementu guzi horiek kontuan hartuz egin zion bide lehentasunez erosteko eskubideari.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu dio ea terrazen aitzinean izanen den biribilguneaz mintzo ote den.

Auzapezak baietz erantzun dio. Biribilgunea egitea pentsatu zen leku horretan istripu anitz izaten baita, eta gehitu du Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluarekin elkarrizketan ari direla.

Nathalie Aïçaguerre andereak zehaztu du biribilgunearen proiektua jadanik existitzen zela medikuen proiektua baino lehen.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea gogoak inarrosteko helburua duen proiektua denez, eta azpimarratu du gehiengoari espekulazioaren kontra posizionatzea eskertzen diola.

Espekulazioari dagokionez, Auzapezak erran dio onartezina zela salerosketa hori aurreikusia zen bezala egiten uztea.

Beste galderarik ezean, Auzapezak Julie Indart andereari, herriko langile berria, eman dio hitza biltzarkideen aitzinean bere burua aurkez dezan.

Julie Indart andereak lehen aurkezpena euskaraz egin du eta ondotik frantsesez. Honela bere lan ibilbidea azaldu du eta bere bi eginkizunak gogoratu: proiektu sustatzaileak laguntzea, izan hautetsi edo herriko langile, proiektu horien diseinatzeke, partaidetzen eta dirulaguntzen atzemateko, eta abar. Bigarren eginkizuna euskal kulturara bideratua da, euskararen sustapena eta garapena egiteko ideiarekin.

Lilian Hirigoyen andereak xehetasunak eskatu dizkio Euskara Garatu euskararen garapenari buruz.

Julie Indart andereak ihardetsi dio hainbat ardatz badirela, besteak beste, euskararen sustapena, langileak euskarara sentsibilizatzea, itzulpenak.

Beste galderarik ezean Auzapezak Julie Indart anderea eskertu eta saioko solasgaiei ekin die.

Julie Indart anderea gelatik atera da.

86 – Herriko bideen izendapenak

ERABAKIA:

Gonzalez andereak, herri biltzarkide delegatua, adierazi du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-30 artikulua Herri Biltzarra behartzen duela errepide eta leku publikoei, baita zirkulazioari irekiak diren bide pribatuei izenak ematea.

Horren xedea da segurtasuna hobetzea (sorospen zerbitzuak bertara heltzeko) eta beste zerbitzuen eraginkortasuna hobetzea (posta, sare hedatzaileak, banaketak, pertsonentzako zerbitzuak...).

Kode berak dio Herriak bideen izenak, etxe eta bestelako eraikinen zenbakiak eskura izan behar dituela, Frantziako Publikoaren eta Administrazioaren Harremanen Kodeko L.321-4 artikulua erreferentziatzeko datuok eskura izan behar direla adierazirik.

Herri biltzarkideei aurkeztu die herriko bideen zerrenda proposatzen dituen izenekin.

Herri Biltzarrak, dokumentua ikusirik, eta Gonzalez anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU bide, plaza guziek, izan pribatu nola publiko, erantsia den taulako izenak ukanen dituztela.

AGINDU DIO Auzapezari ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guzien egitea, besteak beste herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari izendapen berrien egikaritzeko izapideen egiteko (deialdiak, zutoinen erostea, izen-plakak...)

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du «Bideak» batzordearekin eraman den lan luzearen ondorioa dela. Izendapen horren erabilgarritasuna azpimarratu du, bereziki sorospen zerbitzuentzat, batzuetan auzo galduetan diren etxe bakartietara heltzeko. Gehitu du, erabakia soilik dagokiela dokumentuan agertzen diren eta onetsi izan diren izenentzat, zeinek Euskaltzaindiaren onespina ukan baitute.

Ulertzen du aldaketa zenbaitek oharrak eta kritikak eragitea, bereziki sozietateentzat, beren estatutuak aldatu beharko baitituzte, baina Euskal Elkargoak nahi izan duen uniformetasunarekin bat egin du Kanbo herriak.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du ea organismo batek helbide berriak bildu eta informatika programetan eguneratuko dituen.

Auzapezak ihardetsi dio, ordenantza bat helaraziko zaiela zerga zerbitzuei, suhiltzaileei, jendarmeriari eta abar, eta elementu guzti horiek zentralizatuak izanen direla.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du ea frantsesez agertzen den «classant» hitzak ordena alfabetikoari erreferentzia egiten dion, ala bilaketei dagokion.

Marie-Pierre Urrutia andereak, hirigintza zerbitzuko langileak, erantzun dio "classant" hitza barneko lana errazteko hautatu dutela, ez dela bilaketarako hautatua izan.

Lilian Hirigoyen andereak galdetu du nola egingen den zenbakitzea.

Marie-Pierre Urrutia andereak, herria Euskal Elkargoarekin elkarlanean ari dela zenbakitze lanen bukatzeko. Zehaztu du zenbakitze desberdinak izan daitezkeela; herri erdigunean sistema sekuentziala, eskuinean zenbaki bikoitiek eta ezkerrean zenbaki bakoitiek. Erdigunetik kanpo, sistema metrikoa hautatu da, hots bidearen hasieratik zenbat metro luze baten eraikin bakoitzeraino, bakoitiak ezkerrean eta bikoitiak eskuinean atxikiz.

Auzapezak zehaztu du sistema bera existitzen dela jadanik Ezpeletan eta Zuraiden.

87 – Herriko bideak: bideen sailkapen taularen eguneratzea

ERABAKIA

Magis jaunak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari azaldu dio errepideen batzordeak herriko bide eta errepideen taula eguneratu duela.

Lan horren emaitza taula berria da.

Lan horri esker, herriko bide eta errepideetako 60 228,18 metro luze identifikatu dira.

Herri Biltzarrari eskatu dio taula horren onartzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Magis aurkeztu duen eta erantsia den herriko bideen sailkapen taula berria.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du azken eguneratzea 2014ean egin zenean 46 km bide eta errepide genituela, eta orain 60 km. Luzera handiagoaren ondorioz Zuzkidura Orokor handiagoa izanen dugu.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea horrek erran nahi duen herriak terrenoak erosi dituela.

Auzapezak erantzun dio lur sail batzuk bestela sailkatu direla, abandonatuak baitziren, edo etxe multzo bateko bidea zelako.

Jean-Noël Magis jaunak gehitu du etxe multzo pribatuak eremu publikoan erresebatu direla.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du 40tik 60 km-ra pasatzeak %50eko emendatzea egiten duela.

Jean-Noël Magis jaunak ihardetsi dio etxe multzoak egin direla, adibidez Assantza Borda.

Marie-Pierre Urrutia anderea gelatik atera da.

88 – Grancher profesorearen etorbideko eskuratzeen erregularizazioa eta eremu publikoan txertatzea.

ERABAKIA:

Magis jaunak, auzapez ordea, zehaztu du 2022ko uztailaren 11ko erabakiz, Herri Biltzarrak erabaki zuela, orain urte zenbait Grancher Profesorearen etorbidearen zabaltzeko lur batzuen eskuratzearekin egin ziren bideen zabaltzea erregularizatzea.

Erregularizazio horri esker, eskuratu diren lur sailen eroste akta autentikoak izanen ditu herriak.

Jabeak bere lurretan zatiketak egin eta ondotik lur sailen zenbakiak eta azalera eguneratu dira. Ondorioz, katastroko erreferentzia zuzenak ukateko (zenbakia eta azalera) Herri Biltzarrak erabaki berria hartu behar du.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU Orain urte batzuk, bideen zabaltzeko eskuratu ziren lurren erregularizatzea eta horien eremu publikora pasatzea:

Lur sailak	Azalera	Jabea	Prezioa	Bide edo errepidearen izena
AT n°23	1 300 m ²	SARL URSUYA sozietatea, OILLARBURU Anne-Mariék ordezkatuak	Euro sinbolikoaren truke	GRANCHER profesorearen etorbidea

AGINDU DIO, Auzapezari ekintza horren eta eremu publikora pasatzeko behar diren izapideen egitea, eta bereziki herriko bideen sailkapen taula eguneratzea.

89 – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Argiteria publikoko instalazioak Territoire d’énergie des Pyrénées-Atlantiques taldeari eskura ezartzea, «Argiteria Publikoko Obra Berriak» eskumen uztearen ondorioz

ERABAKIA:

Ikusirik, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L512-16 artikulua sindikatuei buruzkoa

Ikusirik, Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques taldearen estatutuak, zeinak 2022ko apirilaren 9an aldatu baitziren,

Ikusirik, herriak «argiteria publikoko obrak» eskumena Territoire d’Energie Pyrénées-Atlantiques-ri (TE 64) utzi nahi izan diola,

Ikusirik, FCTVAren kudeaketa automatizatzeko 2020ko abenduaren 30eko 2020-1791 frantses dekretua eta 2020ko abenduaren 30eko ordenantza FCTVA esleitzeari loturiko tratamendu automatizatuaren prozeduran sar daitezkeen kontuen zerrenda finkatzen duena,

Auzapezak azaldu du, Herriak Territoire d’Energie Pyrénées-Atlantiques (lehengo SDEPA Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques) taldeari pasatu diola argiteria publikoko obren obra agintaritzaren eskumena (lehen instalazioak, eraberritzeak, instalazioen hobetzea).

Kontularitzan, orain arte eskumen hori gastu eta sartzetan 45. kontuan agertzen zen (hirugarrenentzako egin ekintzak).

Kontularitza arau horiekin, argiteria publikoko instalazioak herrien aktiboan sartzen ziren. Halere, Sindikatuak FCTVA delakoa eskuratzen zuenez herrien parte hartzea faktura zezakeen FCTVAren zenbatekoa kenduta.

Alta, 2020ko abenduaren 30eko Frantziako Ministerioko ordenantzak debekatzen du FCTVA horri loturikoak 45. kontuan ezartzea eta beste kontu batzuk zerrendatu zituen horretarako. Ondorioz, 2021eko ariketatik Sindikatuak jada ezin du FCTVA eskuratu argiteria publikoko obrentzat.

Bestalde, herriek ere ezin dute FCTVA hori eskuratu, beren diru parte hartzea zerrendatua ez den kontu batean ezarri behar baita.

Ondorioz, Sindikatu eta Herriak kaltetuak izan ez daitezzen FCTVAri dagokionez, Sindikatuak eta Pirinio Atlantikoetako Zerga Zuzendaritzak honako aterabidea atzeman dute: "argiteria publikoko obra berriak" eskumena Sindikatuari utzi dioten herriek instalazioak sindikatuaren eskura utzi behar dizkiote.

Juridikoki, eskura ezartzeak erran nahi du Sindikatuari ematen zaiola ondasunaren baliatzeko eskubidea, urrik, ondasun horri dagozkion eskubide eta betebeharrak hartuz, nahiz eta ondasunak herriarena izaten segitzen duen.

Onartua izan da eskura ezartzea 2023ko urtarrilaren 1etik goiti eginen diren ekintzei aplikatuko zaiela, ez ordea herriaren aktiboan diren eta jadanik indarrean diren instalazioei.

Honela, herriek argiteria publikoko instalazioen jabe izaten segitzen dute eta dagozkien betebeharrak batzuk hartzen dituzte (segurantza eta elektrizitate fakturak).

Eskura ezartze erregimenaren ondorioak: instalazio berriak Sindikatuaren aktiboan sartuko dira.

Kontularitzari dagokionez, Sindikatuak argiteria publikoko gastuak 2317 kontuan sartuko ditu, eta ondorioz FCTVA berreskuratzen ahalko du.

Ondorioz, obra horietan herriak izanen duen parte hartzea BEZ-az garbi izanen da, hots erreforma aitzin zen bezala.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU aintzat hartzea 2023ko urtarrilaren 1etik goiti, herriak «argiteria publikoko obrak» (lehen instalazioa, eraberritzea, instalazioen hobetzea) eskumena TE64 Sindikatuari uztearen ondorioz, instalazio berriak Sindikatu horren esku utziko dituela.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea herriko etxeak jabe izaten segituko duen, ala SDEPAk izanen duen gidaritza eskumena.

Auzapezak erantzun dio herriko etxeak jabe izaten segitzen duela, baina eskura ezartzearen bidez, TE64k BEZa berreskuratzen ahalko duela. Lehen, herriko etxea jabe zen eta TE.64ri uzten zion proiektua kudeatzen. Honela, TE64k egin zituen lanentzako BEZa berreskuratze eskaera egin zezakeen nahiz eta proiektu sustatzaile edo egituraren jabe izan gabe.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du nola egiten den herrien arteko hautaketa, hots nola lehenesten diren obra batzuk, eta ea herria den proiektu sustatzaile edo SDEPA.

Auzapezak erantzun dio ez dagoela aldaketarik, herriak segitzen du lanen hautua egiten. Kasu honetan BEZa berreskuratzeko zerga kontu bat konpontzea besterik ez da.

90 – Herria eta Enedis-en arteko pasatzeko eskubide hitzarmena.

ERABAKIA:

Magis jaunak, auzapez ordea, adierazi du, Errobi kolegioaren zaharberritze eta berregituratze proiektuaren baitan, Larrazkena eraikinean den Enedis-en postutik, Assantza karrikatik pasatuz eta Errobi kolegioko Departamenduaren eremuraino lurpeko lubakia egin behar dela, kolegioa gerora 400 kVA-eko indarrarekin hornitu ahal izateko.

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea Errobi kolegioko elektrizitate hornikuntza berria pasarazteko sareentzako pasaia eskubide hitzarmen baten izenpetzeko.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den Enedis-ekiko hitzarmena izenpetzeko.

91 – TDF: kontratuaren eraberritzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri biltzarkideei oroitarazi die Kanbo herriak eta TDF sozietateak 1998ko maiatzaren 1ean alokairu zibil kontratua izenpetu zutela, Magdalenako TDF antena dagoen lur funtsaren alokairua finkatzeko.

Aitzineko kontratu hura 2024ko apirilaren 30ean bukatuko denez, bi aldeek adostu dute TDF-ek lekua okupatzen segitzen ahalko duela honako kontratu egitasmoaren arabera:

Alokatzen denaren izendapena: Herriak TDF-ri 612 m² azalerako BP 107 katastroko zenbakia duen terrenoa alokatzen dio, zeinean honakoak atzematen diren:

- 36 metro garaierako zutabe dorrea,
- lauza teknikoa lurrean,
- 25 m² eta 10 m²ko eraikin teknikoak,
- Inguru guzia hesten duen hesia,
- funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren aireko edo lurpeko energia eta telekomunikazio sareak.

Alokatzen dena TDF-ren jabegoa den gune irrati-elektrikoaren ustiaketarako instalazioak dira.

Kontratuaren iraupena: izenpetu denetik hogeituro urteko iraupena izanen du.

Alokairu saria: honako kontratua onartzen dute ondotik zehazten diren baldintzetan:

- urtean 2 500 €ko zati finkoa,
- zati aldagarria, hots TDF-rekin harrera edo komertzio kontratua duen komunikazio elektronikoko operadore bakoitzeko, hots urtean 2500 € x operadore kopurua.

Gaur egun, guneak hiru telekomunikazio elektronikoko operadore hartze dituenek, urteko alokairu saria 10 000 € garbikao da.

Alokairu saria urte zibil bukaera bakoitzean doitu daiteke, Frantziako INSEE estatistika erakundeak finkatzen duen eraikuntza kostuaren indizearen arabera.

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea TDF sozietatearekiko alokairu kontratuaren eraberritzea izenpetzeko.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den TDF sozietatearekiko hitzarmena izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du, AMF64ren alerta baten ondotik, TDF baino beste operadore batzuek eskaintzak egiten dituztela, bereziki diru baldintza interesgarriagoetan, baina telefono mugikorren operadorek bertan antenak ezartzeko inongo bermerik gabe. Egia da herriarentzako alokairu sari interesgarria eskaintzen dutela, baina ondotik operadoreei parte hartze handiagoa eskatzen diete. Hautu hori egin duten hirietan, operadoreek ez dituzte baldintza horiek onartu, garestiegiak zirelako, eta ondorioz ez da operadoreerik kokatu eta sare estaldura eten egin da. Horregatik herriak TDFrekin segitzea erabaki du.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea TDFek duen herria ordaintzen, edo operadoreek zuzenean?

Auzapezak erantzun dio TDF-ek diola ordaintzen, jakin gabe TDF-ek zenbat fakturatzen dien operadoreei.

92 – Traktorea eta pala-traktorearen uztea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari oroitarazi dio herriak prozedura egokituko deialdia plazaratu duela herriko zerbitzu teknikoentzako gurgildun pala bat eta traktore baten erosteko.

Izan ere, zerbitzu teknikoen beharrak emendatzen dira. Egiten dituzten lanak orotarikoak dira eta materiala zaharkitua denez mantenu gastu gero handiagoak izaten ditugu. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dute materialaren zati bat eraberritzea zaharraren trukean.

Honela, lehenago aipatu prozedura egokituko deialdiak gurgildun pala eta traktorea erostearekin batera herriko zerbitzu teknikoetako gurgildun pala eta Arnagako lorezainen traktore zaharra berriz hartzea aurreikusten zuen.

Gurgildun pala zaharra Komatsu WB97R bat da, 97S21439 matrikulatua eta 9000 oreneko erabilpenarekin.

Arnagako traktorea, Kubota B1410 bat da, 15 CV-koa, 3467-XK-64 matrikularekin, herriak 2003ko urtarrilaren 6an erosi eta 2464 oreneko erabilpenarekin.

Deialdien Batzordeak 2022ko irailaren 5ean eman iritzia 2022-028 erabakiarekin baieztatua izan da: gurpildun pala 10 000 €an berriz hartzeko eta traktorea 5 400 €an.

Salmenta horren zenbatekoa ikusirik, erabaki bat hartu behar da.

Oroitarazi du, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 artikuluko 10. puntuan zehazten dela Auzapezari ematen zaizkion delegazioak 4 600 €tik beherako zenbatekoentzat balio dutela. Alabaina, bi salmenta horien zenbatekoak handiagoak dira.

Herri Biltzarrak, Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, herriko zerbitzu teknikoen gurpildun pala M3 enpresari saltzea 10 000 €an eta herriko inbentariotik kentzea;

ONARTU DU, herriko Amagako zerbitzuen traktorea GASSUAN enpresari saltzea 5 400 €an eta herriko inbentariotik kentzea;

93 – Aiglon zinema gelaren Zerbitzu Publikoko Delegazioa: kudeatzailearen hautatzea.

ERABAKIA:

Barbier jaunak, herri biltzarkide delegatua, oroitarazi du «Cinéma l’Aiglon» enpresari eman zaion herriko zinemaren ustiatzeko zerbitzu publikoko delegazioa, 2022ko abenduaren 31ean bukatuko dela. Zinemaren ustiapena segitu ahal izateko deialdi prozedura abiatu baino lehen, Herri Biltzarrari galdetu nahi zitzaion ea ustiapen modu egokia zenez.

2022ko uztailaren 11ko erabakiz, Herri Biltzarrak zerbitzu publikoko delegazio moduko ustiapen printzipioa onartu zuen.

Zinema jadanik zerbitzu publikoko delegazio bidez ustiatua zenez orain arte, batzorde teknikoaren iritzirik ez zen behar. Halaber, tokiko zerbitzu publikoen aholku batzordearen aholkua, zeina 10 000 biztanletik gorako herrientzat beharrezkoa baita, ez zen beharrezkoa gure kasuan.

Hautagaitza txostenak 2022ko irailaren 5a arte igortzen ahal zituzten, eta data hori da hain zuzen ZPD Batzordea deitzeko abiapuntua (Frantziako lege erreferentzia: CE 15/12/2006, préfet des Alpes Maritimes c/ville de Nice, n°297846). Frantziako LKKO-eko L.1411-7 artikulua dio, Herri Biltzarrak ez dezakeela hautagaia lege indarrez hauta ZPD Batzordea deitu eta bi hilabete baino lehen.

Prozeduraren buruan eskaintza bakarra iritsi da Herriko Etxera herriko erosle profiletik.

Zerbitzu Publikoko Delegazio Batzordea lege indarrez bildu zen:

- Irailaren 5ean, eskaintza gutunazalen irekitzeko eta hautagaitza txostenen aztertzeko, lanbide eta finantza bermeen baliozkotasuna egiaztatzeko.
- 2022ko urriaren 17an, esleipendunaren hautua justifikatzeko analisia txostena eta kontratuaren ekonomia orokorra, zeina 2022ko abenduaren 5ean igorri baitzitzaion Herri Biltzarkideei emailez.

Zerbitzu publikoko delegazio Batzordeak Herri Biltzarra deitu zuen, hark esleipendunaren hautua eta ekonomia orokorra aurkezten duen txostena igorri eta gero.

Eskaintzen analisia eta zerbitzu publikoko delegazio Batzordearen aurkezpena aztertu-eta, « Xabi GARAT, norbanako enpresa» izan da emaitzarik onenak ukan dituen. Hautagaiak egin dituen prezio proposamena eta eskaintza teknikoa bat datoz 2022ko uztailaren 11 lako erabakiak onartu hitzarmen proiektuarekin.

Herri Biltzarrak, Barbier jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, « Xabi GARAT, norbanako enpresa » hautatzea, "L'Aiglon" zinema zerbitzu publikoko delegazio bidez ustiatzeko, arrandatze kontratu batekin;

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari zinemaren ustiapenerako zerbitzu publikoko delegazio hitzarmenaren izenpetzeko, erantsia den bezala, eta 2023ko urtarrilaren 1 ean indarrean sartuko dena;

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hartu den erabakia egikaritzeko beharezkoak diren neurrien hartzeko.

HITZ HARTZEAK:

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du ea aldaketarik ba ote den aitzineko hitzarmenarekin. Roger Barbier jaunak zehaztu du ez dela aldaketarik izan. Herriak ustiatzaileari urtean 9 000 €ko dirulaguntza ematen dio eta ustiatzaileak urtero herriari 1 000 €ko saria ordaintzen dio.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak gehitu du zerbitzuari dagokionez aldaketa txikiak izanen direla, ezen saio kopurua bikoiztua izanen baita, gaur egun 6 eta gero 12 saio astean.

Ustiatzailea engaiatu da "Art et Essai" labela errespetatzera, baita publiko gaztearena eta ondare eta errepertorioarena. Azkenik, gehitu du ustiatzailea engaiatu dela Gizarte Ekintzako Udal Zentroarekin eta ikastetxeekin gaikako zikloak antolatzea, zinekluba animatzera eta eztabaida gaualdiak antolatzea. Sareko txartel salmenta ere garatuko du.

Jean-François Lacosta jaunak ohartarazi du 8. artikuluan idatzia dela herriak urtean sei aldiz erabiltzen ahalko duela zinemagela, urririk, eta 13. artikuluan arabera ustiatzaileak zinemagela saioetatik kanpo alokatzen ahalko duela, lekuarekin bat egiten duten ekitaldien antolatzeko. Galdetu du ea Kanboko elkarteek prezio berezirik izanen duten kanpokoen aldean.

Auzapezak zehaztu du 13. artikuluan herriak ez dituela ñabardura horiek landu, hots Kanboko elkarteentzako eskain litzakeen abantailak.

94 – Txakurrak sindikatua (XBHAS/SIVU): dirulaguntza aurretiaz ematea.

ERABAKIAK:

Barbier jaunak, herri biltzarkide delegatua, oroitarazi du 2022ko hasierako aurrekontua bozkatu zenean, herriak Txakurrak sindikatuari dirulaguntza onartu ziola, honako kalkularen arabera: 1,60 € biztanle bakoitzeko (DGF biztanleria) hots, 7 589 biztanle x 1,60 € = 12 142,40 €.

2019tik tasa hori ez zen emendatu, eta ondorioz sindikatuak ezin zien gastuei aurre egin, inflazioa eta prezioen gorakada zirela eta.

2022ko ekainaren 16ko erabakiz, Txakurrak sindikatuak 5 zentimoko emendatzea onartu zuen, herrien parte hartzea 1,60tik 1,65era pasatuz, hots Kanborentzat $7\,589 \text{ biztanle} \times 0,05 \text{ €} = 379,45 \text{ €}$ ko gehigarri bat.

Bestalde, aurreikusten diren zailtasunei begira, gastuak etengabe emendatzen ari baitira, sindikatuak herriari eskatu dio 2022ko urte hondarrean eman diezaion 2023ko dirulaguntzaren aurrerakin bat.

Herri Biltzarrak, Barbier jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, 379,45 €ko dirulaguntza gehigarria ematea 2022rako, urteko dirulaguntza orokorra 12 521,85 €ra eramanez;

ONARTU DU, 2023ko dirulaguntzaren aurrerakin bat 2022an ematea, zeina 2022koaren 1/12ekoa izanen baita, hots $12\,521,85\text{€} / 12 = 1\,043,49 \text{ €}$.

Horretarako beharrezkoak diren kredituak 2022ko abenduaren 21eko Herri Biltzarraren 1. erabaki aldagarriaren bidez txertatu ziren.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du zakur eta gatu herratuek funtzionamendu gastu handiak eragiten dituztela, eta horren ondorioa direla Txakurrak XBHAS-ak dituen diru zailtasunak. Zehaztu du ere pertsona batzuek espontaneoki dohainak egin dituztela, eta horiei esker kinka larri horretatik ateratzen ahalko direla.

Roger Barbier jaunak zehaztu du zakur horien jabeek ezin dutela gehiago beren zakurraz arduratu. Txakurrak sindikatuak ospitalean, presondegian edo hilak diren jabeen zakurrak biltzen ditu. Gatu herratuei dagokienez, herriak gatuen esterilizatzea diruz laguntzen du, eta gatu horiei txip bat ezartzen zaie eta herriaren izenean identifikatzen.

Philippe Barcardatz jaunak galdegin du zer diferentzia baden gatu abandonatu eta gatu herratu baten artean.

Roger Barbier jaunak ihardetsi dio gatu bat abandonatua dela jabeak ezgai direnean eta nehork ezin duenean hartaz arduratu. Kasu horretan, herriko zerbitzuek, udaltzaingoak, edo suhiltzaileek Txakurrak deitzen dute animalia bilatu eta etor dadin. Gatu herratua, hezi gabeko gata da, herriaren eremuan bizi dena,

95 – Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea

ERABAKIA:

Kontuan izanik, 2022ko kontularitza ekitaldiaren aurrekontu nagusiko funtzionamendu eta inbertsio ataletako artikulua batzuetan aurreikusi diren kredituak txikiegiak direla, Aizpuru andereak, diru gaietarako auzapez ordea, Herri Biltzarrari honako 1. erabaki aldagarria onartzea eskatu dio:

Funtzionamendu atala - Gastuak

Kapitulua - Artikulua	Izendapena	Zenbatekoa
Mugimendu errealak		
60611	Ura eta ur ontzea	20 000,00 €
60612	Energia - Elektrizitatea	30 000,00 €
6068	Bestelako erosgaiak (Arnagako saltokia)	20 000,00 €
023	Inbertsio atalerako transferentzia	-25 308,00 €
739215	Hitzarmenpeko fiskalitate isurtzea (egonaldi zergaren %9,09 gutxi gora behera)	-225,00 €
657358	Eman diren dirulaguntzak (Txakurrak)	1 423,00
Ordena mugimenduak		
6811	Higiezin gorpuzdun eta gorpuzgabeen amortizazio zuzkidurak	20 000,00
OROTARA		65 890,00 €

Funtzionamendu atala - Sartzeak

Kapitulua - Artikulua	Izendapena	Zenbatekoa
Mugimendu errealak		
7078	Bestelako salgaiak (museoko saltokia besteak beste)	20 000,00 €
73123	Oinordetza eskubideen eta lur funtsen iragarki zergaren gaineko zerga gehigarria	5 718,00 €
73211	Euskal elkargoaren konpentsazio sariak	16 354,00 €
748388	Beste konpentsazio edo zuzentze sariak - Beste	19 788,00 €
Ordena mugimenduak		
777	Emaitza kontura pasatu diren inbertsio dirulaguntzen zatia	4 030,00
OROTARA		65 890,00 €

Inbertsio atala - Gastuak

Kapitulua - Artikulua	Izendapena	Zenbatekoa
Mugimendu errealak		
165	Gordailuen itzultzea (alokatzaileak joaten direnean)	438,00 €
2188	Beste higiezin gorpuzdunak	35 000,00 €
2315	Bidean diren ibilgetuak – instalakuntza teknikoak	-35 000,00 €
Ordena mugimenduak		
139	Dirulaguntzen amortizatzea (berriz hartzea)	4 030,00
OROTARA		4 468,00 €

Inbertsio atala – Sartzeak

Kapitulua - Artikulua	Izendapena	Zenbatekoa
Mugimendu errealak		
021	Funtzionamendu ataletiko transferentzia	-25 308,00 €
024	Inbertsio uzteak	10 001,00 €
10226	FCTVA	-225,00 €
Ordena mugimenduak		
28...	Ibilgetuen amortizazioa	20 000,00 €
OROTARA		4 468,00 €

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, gehiengoz:

ONARTU DU, gorago azaldua den erabaki aldagarria.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak adierazi du aurten ekitaldi bukaerako erabaki aldagarriaren aurkezpena sinpleago dela, M57 nomenklatura hartu zenetik kontularitza atalen arteko uztartzeak baimenduak direlako.

96 – 2022ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (AP/CP): indarrean diren AP/CP-en berrikustea eta AP/CP berrien sortzea

ERABAKIAK:

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapez ordea, honakoa aurkeztu du:

Bidean diren AP/CP-en berrikustea:

Kontuan izanik 2022ko apirilaren 12ko Herri Biltzarrak onartu zuela 2022tik 2024rako kontu ekitaldietan AParen sortzea eta CPen banatzea,

Kontuan izanik, zenbait APren zenbatekoak aldatu edo/eta CP banatu behar direla, gaur egun erregistratuak diren gauzatzeen arabera,

Herri Biltzarrari proposatu dio baimen programatuetako (CP) ordainketa kredituen (CP) banaketa berria onartzea, erantsiak diren taulen arabera (1. zkia):

Programa Baimenen eta Ordainketa Kredituen berrikustea (AP/CP)

Kontuan izanik eragiketa berriak kontu ekitaldian zehar identifikatu direla,

Kontuan izanik, eragiketa horiek AP/CP gisa aurkez daitezkeela,

Herri Biltzarrari proposatu dio bi AP/CP berrien sortzea eta aurretiaz ordainketa kredituen banaketa onartzea, erantsiak diren taulen arabera (2. zkia):

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU, bidean diren AP/CPen berrikustea, 1. eranskinean diren taulen arabera.

ONARTU DU, AP/CP berrien sortzea, 2. eranskinean diren taulen arabera.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak oroitarazi du lehen harria ezarri zenean kostua 1,3 milioikoa zela, Kanbok erdia ordaindurik eta gelditzen zena Euskal Elkargoa, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Frantziako Estatuaren artean. Bakoitzak zenbatean parte hartu duen jakin nahi du.

Auzapezak ihardetsi dio, gaur gaurkotz, jakinarazi diren laguntzak 752 000 €koak direla, hots 312 000 € DETR gisa, 150 000 € Pirinio Atlantikoetako Departamenduentzat, 250 000 € Euskal Elkargoa eta 40 000 € Frantziako Tennis Federazioa.

97 – Inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea

ERABAKIA:

Aizpuru andereak honakoa aurkeztu du:

2022 kontu ekitaldian herriak hainbat inbertsio programa abiatu ditu, eta horietatik eratorriak dira 2023 hasierako kontratu eta finantza engaiamenduak. Alta, 2023 hastapeneko finantza engaiamenduak ezin dira gauzatu, kontularitza ikuspegitik, inbertsio kredituak 2023ko hasierako aurrekontuan ireki ez diren bitartean.

Ondorioz, eta 2023ko herriko kontseiluan bozkatuko diren zenbatekoak jakin gabe, eta zerbitzuek inbertsio atalean lanean segitu ahal izan dezaten 2023ko hasierako aurrekontua onartu arte, honakoa proposatzen dio Herri Biltzarrari:

- araudiarekin bat etorriz, inbertsio gastuetako 2022ko kontu ekitaldiko hasierako aurrekontuko kredituen %25 irekitzea, 2023ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontua bozkatu bitartean (ikus eranskinean den taula).

- Iragan ekitaldiko aurrekontu nagusian ireki diren kredituen laurdenera arteko inbertsio gastuen engaiatzea, likidatzea eta agintzea, kanpo gelditzen direlarik zorraren itzultzeko kredituak, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorrak agintzen duen bezala,

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONARTU DU, 2023ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontuaren bozkaren behar, 2022ko kontu ekitaldiko inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

HITZ HARTZEAK:

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu ea hautetsien informatika gailu gisa aurkeztua dena tabletak ote diren.

Auzapezak baitez eta zehaztu du aurrekontuan sartuak zirela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea bideo-babesaren instalazio lanak hasi ote diren.

Auzapezak erantzun dio ez dela hasia eta hori ez dela gaia.

98 – «bestak eta ospakizunak» eta «harrerak» gastuei loturiko kontularitza ezarpenak

ERABAKIA:

Frantziako kontulari publikoak ordainketa aginduen frogatzeko lurralde erakundeek beren gastuak justifikatzeko aurkeztu behar dituzten agirien zerrenda ematen duen 2016/01/20ko 2016-33 frantses dekretua ikusirik, Aizpuru andereak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari jakitera ematen dio lurralde erakundeei eskatzen zaiela, erabaki bidez, 6232-bestak eta ospakizunak- eta 6234-harrerak kontuetara ezartzen diren gastuen ezaugarri nagusiak zehaztea (M57 kontularitza nomenklatura).

Honakoa proposatu du:

- 1- literalki besta eta ospakizun izaera duten gastu oro 6232 kontuan ezartzea:
 - Orokorki, ondasun eta zerbitzuak, besta, ospakizun, kultur edo turismo ekitaldietarako objektu eta elikagaiak, eta harrera ofizial eta ospakizunetan eskaintzen diren cocktail eta antzeko zerbitzuak;
 - Loreak, lore sortak, grabadurak, dominak, kopa eta bestelako opariak, besteak beste eztei, ehorzketa, sortze, erretreta hartzeetan eskaintzen direnak, baita kirol eta kultur sariak, edo harrera ofizialak;
 - Ikuskizun talde edo sozietateen fakturen ordainketa, emandako zerbitzu edo ikuskizunentzat;
 - Herriko ekintzen kariatara herriko hautetsi eta langileen otordu gastuak (bereziki urtatseko eta herriko bestetako bazkariak) ;
 - Bilkura, tailer eta ekitaldien antolatze behar diren elikagai eta orotariko material txikien gastuak.
- 2- Noiz behinkako harreraren gastuak 6234 kontuan ezartzea.

Herri Biltzarrari eskatu dio kontu ezarpen horiei buruzko erabakia hartzea.

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU, gorago zerrendatu diren ohiko besta eta ospakizun gastuak 6232 kontuan ezartzea, eta noiz behinkako harrera gastuak 6234 kontuan.

99 – Antolamendu zergaren herriko zatiaren etekina Euskal Elkargoari derrigorrez isurtzea: 2022ko azaroaren 7ko erabakiaren deuseztatzea

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honako azaldu du:

Herriek herri elkargoei isuri behar zieten antolamendu zerga kendua izan da. Frantziako 2022ko 2022-1499 finantza lege zuzentzaileko 15. artikulua isurpen horren «hautazkotasuna» berrezarri zuen 2022ko abenduaren 1ean.

Artikulu horrek herriei aukera ematen die lehengo legepean hartu dituzten erabakiak «aldatzeko edo lekuz mugitzeko» derrigorrezko isurpenari zegokionez.

Ondorioz, horretaz baliatu nahi diren herriek erabakia hartu behar dute lege indarrean sartu eta bi hilabetera, hots 2022ko otsailaren 1a baino lehen.

IKUSIRIK, Frantziako 2022ko abenduaren 1eko 2022-1499 finantza lege zuzentzaileko 15. artikulua;

KUSIRIK, Frantziako Zerga Kodeko 1379 artikulua;

IKUSIRIK, Herri Biltzarraren 07-11-2022-073 erabakia, non onartzen baitzen herriak jarduera ekonomikoko eremu berrietan soilik sortuko (eraikitzea edo handitzea) diren eraikin berrien gaineko antolamendu zergaren herriaren zatia Euskal Hirigune Elkargoari derrigorrez isuriko diola;

Kontuan izanik, 2022rako herriak elkargoari eginiko isurpen modalitateak aurreikusten dituzten erabakiek indarrean dirautela, baldin eta lekuz mugituak edo aldatuak izan ez bada, eta erabakia Frantziako 2022-1422 legea indarrean sartu eta bi hilabetera hartua izan bada, hots 2022ko otsailaren 1.a baino lehen;

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, gehiengoz **ERABAKI DU:**

Jarduera ekonomikoko eremu berrietan (sortzea/handitzea) egienen diren eraikuntzen gaineko antolamendu zerga Euskal Hirigune Elkargoari isurtzea ezartzen zuen 07-11-2022-073 erabakia **KENTZEA.**

BAIMENA EMATEA. Auzapezari honako erabakiaren egikaritzeko behar diren ekintza guzien egiteko.

JAKINARAZTEA. zerga zerbitzuei eta Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariari erabaki berria hartu dela.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak gibel egite hori deitoratzen du. Ez bada gehiago nahitaezkoa, ez zaio ezta ere normal iruditzen eginahal kolektiboan ez parte hartzea.

Auzapezak gehiengoaren jarrera lehenago izan den esperientzia ezkor batekin justifikatu du. 2018an saneamendu eskumena eskuz aldatu zenean, herriak ez zituen saneamendu aurrekontuko soberakinak

atxiki, nahiz eta juridikoki eskubidea ukan. Normala iruditzen zitzaion, elkartasun ikuspegi batetik, zenbateko horiek isurtzea. Baina, elkartasuna osoa izan zedin, herri guzietan berdintzat jokatu beharko zuket. Alta, ez da hala izan. Esperientzia hori dela-eta, eta oraingoan isurpena ez baita nahitaezkoa, proposatzen dugu ikustea beste herrietan nola jokatzen duten, eta menturaz berantago isurtzen ahalko dugu antolamendu zerga.

Eliane Aizpuru andereak gehitu du, kontuan izanik Ipar Euskal Herriko herri anitzek ez dutela antolamendu zergarik biltzen, ez zegoen arrazoirik Kanbok berea isur zezan, jakinez gainera, tasa %0 eta %5 artean kokatzen ahal denean, gure herrian %5ekoa dela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak oroitarazi du herri Euskal Elkargoan dela, eta diruak Kanborentzako ere balio duela, adibidez mugikortasunentzat, edo tenis estaliarentzat.

Auzapezak zehaztu du, tenisarentzako Euskal Elkargotik jaso diren 250 000 €ak, Euskal Hirigune Elkargoa sortu zenean Errobi Elkargoak eman zituen zortzi milioietatik heldu direla.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratu du saneamendu kolektiboko gaietan, egia dela inbertsio soberakina isuri dela, baina programatuak ziren lan guztiak Euskal Elkargoak egin dituela, eta ondorioz herria ez dela kaltetua izan.

Auzapezak zehaztu du ez duela sekula erran eskumen aldaketa horretan herri kaltetua izan denik, baina zuzentasun eta berdintasun arazoa dagoela azpimarratu nahi duela, beste batzuek beren soberakinak atxiki dituztelako. Oroitarazi du soberakinak zituzten beste herrietan soberakin horiek atxiki dituztela.

100 – Turismo Bulegoarekiko mandatu hitzarmena.

ERABAKIA

Irastorza jaunak oroitarazi du Kanbok hainbat kultur ekitaldi antolatzen dituela, eta horietako batzuek diru sartzak eragiten dituztela (Adibidez, Arnagako Udaldia abuztuan).

Ekitaldi horietako batzuk Turismo Bulegoarekin partaidetzan antolatzen dira.

Partaidetza hitzarmen bidez formalizatu zen, non Kanbo herriak Turismo Bulegoari txartelak saltzeko mandatu emanen dion, eta trukean Herriko Etxeak komisio bat fakturatuko diola finkatzen den.

Mandatu hitzarmen proiektuak Herria eta Turismo Bulegoaren arteko harreman guztiak finkatzen ditu.

Irastorza jaunaren aurkezpena entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONARTU DU, Kanbo herriaren eta Kanboko Turismo Bulegoaren arteko mandatu hitzarmena,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hitzarmen horren eta datxikon agiri oro izenpetzeko.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du zergatik Turismo Bulegoak, Herriaren dirulaguntzak dituen elkarteak izanik, Kanboko elkarteei eta herriari 60 zentimo hartzen dizkien saltzen den txartel bakoitzeko, jakinez Turismo Bulegoaren eginkizuna dela baita ere elkarteek antolatzen dituzten animazioentzako txartelak saltzea.

Didier Irastorza jaunak zehaztu du ber sistema existitzen dela beste herri batzuetan, eta Turismo bulegoak lan bat egiten duela eta zerbitzu bat eskaintzen duela. Horrek 60 zentimoak justifikatzen ditu.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zenbatekoa den Turismo Bulegoarentzako dirulaguntza.

Didier Irastorza jaunak erantzun dio 200 000 €koa dela.

Auzapezak gehitu du 60 zentimo deus ez dela. Azpimarratu du ere Turismo Bulegoak Kanboko sustapena egiten duela, Bixkotxaren Bestaz aparte, eta ez dela bere lehen eginkizuna ikuskizun bat edo besteren txartelak saltzea. Alta, hori ere egiten du. Eta horretarako 60 zentimo hartzen du, eta zentimo horiek ikusleek dituzte ordaintzen, elkartearen diru sarrerak kaltetu gabe.

101 – Liztor asiarren kontrako borroka: herriaren diruzko parte hartzea

ERABAKIA

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Liztor asiarra, «vespa velutina» liztor espeziearen izate inbaditzailea kontuan izanik, eta herriaren lurraldean haren kabien kopurua emendatu dela,

Kontuan izanik, 2018ko abenduaren 15eko erabakiz, Euskal Elkargoak erabaki zuela 2019ko urtarrilaren 1etik herriei itzultzea lehenago herri elkargo mailan egiten ziren eskumenak, besteak beste liztor asiarraren kontrako borroka,

Kontuan izanik liztor asiarrak eragin kaltegarria duela bioaniztasunaren gainean, erleak bereziki hunkitzen dituela eta segurtasun publikoarentzako ere arriskua dela,

Kontuan izanik segurtasun publikoko eta pertsonen geriza arrazoiengatik ezinbestekoa dela liztor asiarren kabien emendatzea mugatzea,

Kontuan izanik, 2021eko abenduaren 16ko erabakiz, Kanboko Herri Biltzarrak 2022rako liztor asiarren kabien suntsitzeko ematen zuen partehartzea urte batez luzatzea erabaki zuela,

Ikusirik, Frantziako LKKO-ko L2212-1 eta L2212-2 artikulua, Auzapezaren polizia botereei buruzkoa, «ordena, segurtasuna eta garbitasun publikoa» eginkizunak barne biltzen duena,

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio 2023ko urtarrilaren 1.etik herriak bere gain ditzala liztor asiarren kabiak suntsitzeko gastuak, 100 €ko muga bateraino, lan horren egiteko egiaztatua den enpresa baten faktura herriko etxean aurkeztuz.

Herri Biltzarrari eskatu dio diru partehartze horretaz erabakitzea.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU, 2023ko urtarrilaren 1.etik herriak bere gain ditzala liztor asiarren kabiak suntsitzeko gastuak, eskuhartze bakoitzeko 100 €ko muga bateraino.

102 – Eссор Cycliste Basque lasterketa: 2023ko hitzarmena

ERABAKIA

Irastorza jaunak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea 2023ko Eссор Cycliste Basque lasterketaren antolatzeko izen bereko elkartearekin hitzarmenaren izenpetzeko:

Lasterketaren nondik norakoak:

Errobiko Zirkuitua, 2023ko otsailaren 5ean, igandearekin, abiatzea 14:00an Edmond Rostand hiribidetik, 25 kilometroko itzulia eginez Ezpeleta, Zuraide eta Uztaritzetik. Bukatzeko, tropelak 7 kmko itzulia egingen du Kanbo inguruan eta Arnagatik pasatuz.

Dirulaguntza eskaera: 3 500 €

Abiatze gunea eta helmuga: Kanbo, Sorhainde plaza parean, Edmond Rostand hiribidean.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Eссор Cycliste Basque elkartearekin 2023ko otsailaren 5ean iraganen den «Errobiko itzulia» lasterketaren antolatzeko hitzarmenaren izenpetzeko,

ERABAKI DU, Eссор Cycliste Basque elkarteari 3 500 €ko dirulaguntza ematea.

HITZ HARTZEAK:

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du ez ote den bi urtetik behin: urte batez abiatzea eta hurrengoan abiatzea eta helmuga.

Didier Irastorza jaunak baietz erantzun dio, zehaztuz urte batez ez dela Eссор lasterketarik izan. Eta azpimarratu du antolatzaileek gero eta zailtasun gehiago dutela lasterketa errezibitu nahi duten herrien atzemateko.

Auzapezak gehitu du aurtan 3 500 € direla herria abiatze gunea eta helmuga ere izanen delako.

103 – Artzamendi XBHAS: estatutuen aldatzea

ERABAKIA

Mondin jaunak, Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak, honakoa aurkeztu du:

2022ko urriaren 27ko saioan Artzamendi ABHASak bere estatutuen aldaketa onartu duela.

Estatutu berrien arabera:

- Sindikatuaren ostatu jarduera egitura kudeatzaile baten bitartez egitea,
- egoitza soziala aldatzea,
- zerbitzuaren kalitatearen aldeko menu batzorde baten sortzea eta xedea.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren (LKKO) arabera sindikatuko partzuer diren herriek Artzamendi XBHASak estatutuak moldatu eta hiru hilabete dituzte estatutu berrien onartzeko.

Herri Biltzarrari eskatu dio Artzamendi XBHASaren estatutu berrien onartzea.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DITU, Artzamendi XBAHSaren estatutu berriak, eranskinean diren bezala.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du aldaketa ezinbestekoa zela, ezen estatutuak zaharkituak baitziren.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du ea langileentzat aldaketa berezirik egin ote den?

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak ezetz erantzun dio, eta zehaztu Jantegiko langileak XBHASean hartzean zuzenbide publikoko kontratupeko bezala hartu direla, funtzionario bilakatu gabe.

Lilian Hirigoyen andereak jakin nahi izan du aldaketarik izan ote den lan kontratuetan, bereziki ordutegi eta oporraldiei buruz.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du langileei lan denborari buruzko araudiak aplikatzen zaizkiela, eta esparru horretan lansari bera atxikitzea hauta zezaketela baina lan denbora gehiago eginez, edo bestela Jantegin zuten lan denbora atxikitzea baina lansari txikiagoarekin.

Lilian Hirigoyen eta Argitxu Hiriart-Urruty andereek deitoratu dute egiazko hauturik ez izana eta dimititzeko hertsapena, jakinez batzuek urte anitz egin dutela zerbitzu hori ematen, eta beren lanean biziki estimatuak zirela.

Didier Irastorza jaunak zehaztasunak eman ditu langile batzuei buruz, eta gehitu du hamazazpitik soilik 3 joan direla. Gehitu du ere, legeak langileak 1607 oren egitera behartzen dituela. Langile guzietan negoziazioa izan da, eta herria saiatu da lehengo egoera kontuan hartzen baina lege esparrua betez.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea chefa joaten den.

Didier Irastorza jaunak ezetz.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea XBHASak aisialdi guneei ere zerbitzua ematen ote dien.

Didier Irastorza jaunak zehaztu du zerbitzua Kanbon, Ezpeletan, Ainhoan eta Hazparnen ematen dela, bazkarien banaketa eginez. Gehitu du Xalbador kolegioan egitura berria egin dutela, zeinean XBHASak parte hartu baitu materialaren erosteko, 300 000 €ko inbertsioarekin.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du Xalbadorreko jantokira eskola publikoko haurrak ere joaten direla bazkaltzera.

104 – Langileria: postu sortzeak

ERABAKIA

Amestoy andereak, herri biltzarkidea, honakoa aurkeztu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorrek Auzapezari ematen dio karriketako segurtasunaren eskumena, baina ez du behartzen udaltzainik ezartzera oinezkoentzako pasabide babestuetan. Izan ere, eginkizun hori herriko langileek burutu dezakete. Herriko langileek darabiltzaten keinuak beste edozein herritarrek erabiliko litzuketanak izan daitezke, ibilgailu bat geldiarazteko eta oinezko bat lehentasunez pasabide babestuan pasarazteko, Frantziako Errepide Kodeko R.220 artikulua araberako. Istripua gertatuko balitz, herriaren erantzukizun zibila jokoan izanen litzateke.

Kanboko lehen mailako eskolen inguruan segurtasuna zaintzeko xedez, Auzapezak « Papy Mamy trafic » dispositiboak ezarri nahi izan du. Dispositibo horren helburua da erretretan diren pertsonak kontratatzea ama-eskola eta lehen mailako eskoletako sartzeko eta ateratzeetan haurrak bideratzeko eta zaintzeko. Jaka horia soinean eta "STOP" panela eskuan izanen duten langile horiek egiazko hurbileko lotura egiten dute familiekin. Egunean oren batez presente izan ohi dira, eta asteko lau egunez (astelehen, astearte, ostegun eta ostiralak).

Eginkizun horren betetzeko 75 urtera arteko adinekoak herriko langile izanen dira, dagozkien eskubide eta betebeharrekin. Ondorioz, finkatu zaizkion lan tenoreetan bere lan tokian egon behar du.

Talde horiek funtzionalki udaltzaingoari atxikiak izanen dira, zeinari jakinarazi beharko bait dizkioten beren zereginean dituzten zailtasunak.

Orduko 11,26 € gordinoko ordain saria dute, SMIC-ari erreferentzia eginez, familia gehigarrik eta irailatik ekainerako saririk gabe, eskola egitarauaren arabera.

Beharrei ihardesteko, Kanbo herriak denbora ez osoko hiru aldi baterako langile kontratatu nahi litzuzke.

Dispositiboak ez du formalismo berezirik behartzen,

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari erretretan diren hiru pertsonen kontratatzeke, eskola, ama-eskola eta kolegioetako sartzeko eta ateratzeetan segurtasunaz arduratzeko.

HONELA FINKATU DU: Orduko 11,26 € gordinoko ordain saria dute, SMIC-ari erreferentzia eginez, familia gehigarrik eta irailatik ekainerako saririk gabe, eskola egitarauaren arabera.

ERABAKI DU Ordain sari horretatik absentzia guztiak kentzea (eskola oporrak izan ezik).

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak harridura adierazi du, biziki aberatsak ez diren pertsona erretiratuak kontratatzeaz, sari gehigarri baten emateko. Bere ustez harrigarria da Kanbo bezalako herri batek lan egiteko adinean eta langabezia diren pertsonak ez lagundu ahal izatea. Galdetu du ea bi udaltzainek ezin ote duten segurtasun lan guzi hori egin.

Auzapezak ihardetsi dio beste herri askotan existitzen den dispositiboa biziki ongi ibiltzen dela. Kanboko udaltzainei dagokienez, beren lan ordutegian ohartu gara ez zegoela haien beharrik bereziki eskoletako sartze eta ateratzeetan.

Proposamena gogoeta orokor baten barnean ulertu behar da, udaltzainen lan denboraren kudeaketa orokorraren baitan, eta ez lan baten egiteko kontratatuko diren pertsonen inguruko gogoeta bezala.

Lilian Hirigoyen andereak jakin nahi du zein ikastetxek izanen duen zerbitzu hori. Ikastola horien artean dea?

Nicole Amestoy andereak ihardetsi dio eskola publikoentzat eta Sainte Marie eskolarentzat izanen dela.

Argitxu Hiriart-Urruty eta Lilian Hirigoyen andereak harritu dira Ikastola ez baita agertzen.

Auzapezak oroitarazi du bere kezka dela udaltzainen lan denbora nola banatzea, ez ordea ikastetxeetako segurtasun zerbitzua murriztea.

Nicole Amestoy andereak zehaztu du, langabetuei dagokienez, lan denbora oso mugatua dela eta egunean zatikatua.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zer egiten duten udaltzainek goizeko 8etan.

Auzapezak erantzun dio izendatu diren eskoletako segurtasuna eta ikasleen zeharkatzeak bermatzen dituztela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak deitoratu du jakitea eskola pribatuak herriko langileen zaintza zerbitzua bazuela, ez ordea ikastolak. Dagoena bermatzea eskatu du.

Auzapezak erantzun dio ez dela berme kontu bat, sinpleki proposatzen duela Papy Mamy Trafic zerbitzu baterako bidea egitea. Zehaztu du dagoeneko ez dela kontratatzerik egin, egitekotan hiru pertsona izanen direla, gaur egun udaltzainek betetzen duten zerbitzua bermatzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak kontratatze modalitateak zeintzuk diren jakin nahi izan du.

Auzapezak erantzun dio baldintza orria beteko dela, eta kontratazio prozedura bat eginen dela bertze edozein enplegurentzat bezala.

105 – Langileria: enplegu sortzea

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko zerbitzu teknikoetako idazkari enplegu iraunkor baten sortzea, zerbitzu teknikoetako administrazio lanez gain eskola garraiorako autobusa ere gidatzen ahalko duena.

Asteko batezbesteko lan denbora 35 orenkoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: zerbitzu teknikoetako idazkaria eta eskola autobus gidaria

Dagokion gradua: teknikari laguntzailea

2. klaseko teknikari laguntzaile nagusia

1. mailako teknikari laguntzaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2º artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzten,
- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2º artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, funtzioen izaerak eta zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute, eta ezin izan bada funtzionarioirik kontratatu, mugikortasun bidez edo konkurtsoa lortu duten berrien artean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak dagokion graduaren lehen mailako saria izanen luke.

Hala balitz, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, teknikari laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU

- 2023ko urtarrilaren 1etik denbora osoko zerbitzu teknikoetako idazkari eta eskola garraioko autobus gidari enplegu iraunkor baten sortzea,

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,

- langile kontratatua, kontratupekoa izango balitz, dagokion graduako lehen mailako saria izango luke,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guziak,

- **ZEHAZTU DU,** urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

– Bestelako gaiak:

Jean-Paul Alaman jaunak zalantzak ditu coworking guneari buruz.

Auzapezak zehaztu du coworking gune bat aurreikusia dela Gurutze Gorriaren lehengo lokalean.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Larresoro, Uztaritze eta Jatsu bezalako herriek galdeginik uraz eta uholdeez arduratzen diren Euskal Elkargoko langileek egin dituzten bilkura publikoetan erranak aipatu ditu. Galdetu du ea gehiengoak halako bilkura egiteko asmoa ote duen, uholdeek herrian duten eragina kontuan izanik.

Jean-Noël Magis jaunak galdetu du ea urraspide horiek uholde arriskuaren prebentzio plana aitzin egin ote diren.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak erantzun dio urraspide indibiduala dela.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du Kanbok baduela PPRi uholdeen arrisku prebentzio plana, eta horretarako bilkura publikoa egin zela. Gehitu du, halako eskaera egin duten herriek ez dutela PPRi-rik.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak ezadostasuna adierazi du. Zehaztu du bilkura bereziak egin direla eta Kanboko zenbait biztanle Ezpeletara joan direla. Proposatu du Euskal Elkargoko teknikariekin bilkura baten egitea.

Jean-Noël Magis jaunak gehitu du gai horri buruzko bilkura bat egin zela orain 5 urte. Azpimarratu du egin behar den lehen gauza dela biztanleei indarrean de PPRi esplikatzea.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak Kanboko herriko etxeak biztanle guzientzako bilkura bat antolatzea nahi du. Galdetu du ere zer motako lanak egiten ari diren Termetan, zeinek uraren pasatzea oztopatuko luketen.

Auzapezak erantzun dio Euskal Elkargoko teknikariarekin Akitaniako eskualdeak antolatu bilkura batean izan zela, eta baieztatu du GEMAPIk, duen aurrekontuarekin, ez duela dirurik Errobin inolako antolamendurik egiteko. Zehaztu du, gutxi gora behera 5 milioi euro ekartzen duen zerga ez dela nahikoa gai horri buruzko ikerketek aurreikusten dituzten lanen egiteko. Akitaniako Alain Rousset presidenteak Euskal Elkargokoari deitu zion jakiteko zer pentsatua izan zen Errobirentzat, errepikatzen diren uholdeei buruz herriarekin lan baten abiatzeko. Elkargoak erantzun dio ez zegoela prest halako lanen diruztatzeko, eta soilik eskaini dezakeela proiektu sustatzailea laguntzea.

Jean-Noël Magis jaunak gehitu du, Termei dagokienez, DDTM-i aurkeztu zaion txostena oraindik aztertze bidean dela, berriki eskatu zituen informazio gehigarriak guregandik eskuraturik. Zehaztu du prozedura luzea dela, eta bururatu arte ezingo direla lanak hasi.

Auzapezak oroitarazi du oraingoz ez dela jakiterik zer nolako lanak egin beharko diren Termetan.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak berretsi du arrisku horri buruzko bilkura nahi lukeela, zeren uholdeek etxebizitzak hunkitzen baitituzte, baita azpiegiturak ere, hala nola trenbidea. Arazo orokorra dela azpimarratu du eta nahitaez landu beharko dela.

Auzapeza ez dago horrelako bilkura bat egitearen kontra, eta horren egingarritasuna aztertuko du.

Jean-Noël Magis jaunak bukatzeko zehaztu du Kanbo herriak ariketa xuria egin zuela Herriko Babes Planaren baitan, Predict Service erakundearekin partaidetzan, larrialdi egoeran hautetsiek eta zerbitzuek zer nolako erantzuteko gaitasuna zuten neurtzeko.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:35ean hetsi du.

Véronique CADEPOND-LARRONDE
Saioko idazkaria



Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza

